



Esp.kodea: 2021JDIR0004

Gaia: GRABAZIO LAGUNTZAK HERRIKO
MUSIKA TALDEENTZAT 2021
Hasiera eguna: 2021/05/03

JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko ekainaren 3an egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzzen eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

“Del Val bakarlaria: dirulaguntza eskatzea disko bat grabatu eta editatzeko (2021JDIR0004)”

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Garapen Komunitarioaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Del Val Arrasateko bakarlariak diru laguntza eskatu dio Udalari disko bat grabatzeko. Bakarlariak betetzen ditu 2021ko dirulaguntza deialdiaren baldintzak eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu du, tartean diskoaren edizio gastuei dagokion faktura 1.650,00 € (BEZ barne).

Hori dela eta, hauxe proposatzen dio Garapen Komunitarioko Batzordeburu honek Tokiko Gobernu Batzarrari:

- **LEHENENGO.** 2021ko diru laguntza deialdiak finkatzen duenari jarraiki, Del Val bakarlariari 700,00 €ko laguntza onartzea, 1-0410-480-337-20-01 maketak grabatzeko diru laguntzen kontu sailaren kontura.
- **BIGARREN.** Dirulaguntza onartzean, Del Val bakarlariak konpromisoa hartzen du gazte txokoetako baten kontzertu bat doan eskaintzeko.
- **HIRUGARREN.** Del Val bakarlariari gogoraraztea onartutako laguntza jasotzeko Udalari diskoaren zazpi kopia entregatzeaz gainera, grabazio-edizio kostuen faktura ere aurkeztu beharra duela.
- **LAUGARREN.** Grabatutako diskoaren karatula editatuz gero, testua euskaraz azaldu beharko da bakarrik edo beste hizkuntza batzuekin batera, edonola ere, euskarazko testua bereziki nabarmendu beharko da.”

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozelan ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Kodea	BB21/00657	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2021/eka./08	CUDO	000.0055.AAAALMFP.6.nWR6	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALMFP6.nWR6			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2021JDIR0004

Gaia: GRABAZIO LAGUNTZAK HERRIKO
MUSIKA TALDEENTZAT 2021
Hasiera eguna: 2021/05/03

Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auszietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.

Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurso aurkeztu dezakezu.

Idazkaria

JON GARCIA DEL VAL
UDALPE KALEA, 5 - 4. EZK
20500 ARRASATE/MONDRAGON

Kodea	BB21/00657	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/eka./08	CUDO	000.0055.AAAALMFP.6.nWR6
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALMFP6.nWR6		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

